

IZENBURUA : Peio

INTERESA :

- Ipuin bat entzun eta barneratu idazketatik pasatu gabe.

HELBURUAK :

- Ipuin bat hiru zatitan entzun eta ulert araz ;
- Entzumena, ulermena eta mintzamina landu ;
- Hiztegia landu.

GRABAKETA :

- <http://nagusia2.interne.lddikas.dyndns.org/~site/spip.php?article120>
- http://www.argos64.fr/ilias/repository.php?ref_id=13422&cmd=view

FORMATUAA :

mp3

IRAUPENA :

3 mn 40 s

PISUA :

3,3 Mb

TESTUA : LEHEN GRABAKETA.

Behin, itsas bazterrean, Peio josteta ari zen ttun-ttun batekin. Bat-batean, balea eta elefantea elkarrekin mintzatzen entzun zituen. Ttun-ttuna utzi zuen eta sasi gibelean gorderik behatu zituen bi abere harrigarriak, baina entzun zuena ez zitzaion batere gustatu.

Elefanteak zion : « Ni naiz munduko azkarrena »

Eta baleak zion : « Ez, ni naiz munduko azkarrena ».

Azkenik, ados jarri ziren beren indarrak elkartuz, munduko nagusiak izanen zirela eta beste izaki guziak menperatuko zituztela.

Baina Peio ez zen batere ados eta ideia bat ukan zuen.

Ariketak:

Hiztegi batean, ondoko hitzak bilatzen dituzu eta kaierean idazten:

Ttun-ttuna, harrigarri, izaki, menperatu.

Biharamunean, zenbait ikaslek kondatzen dute lehen zatia, hiztegi berria erabiliz .

TESTUA : BIGARREN GRABAKETA.

Biharamunean, Peio balearengana joan zen eta erran zion : « Balea, balea, otoi, lagun nazazu, munduko azkarrena baitzara laguntzen ahal nauzu ! »

« Baietz azkarrena naizela, zer gertatzen da ? »

Peiok erran zion erdi nigarrez: « Hor, sasi gibelean nere behia lohian sartua da eta ezin dut handik atera ».

Baleak ihardetsi zion: « Lagunduko zaitut. Soka bat ekar ezazu, buru bat behiaren adarrei lot ezazu eta beste burua nere buztanari ».

« Ados », erran zuen Peiok, « eta ttun-ttuna entzutean tiratuko duzu ».

Ariketak:

Hiztegi batean hitz hauek bilatzen dituzu eta kaierean idazten:

Lohi, ihardetsi, adar, lotu.

Biharamunean, zenbait ikaslek kondatzen dituzte lehen eta bigarren zatia, hiztegi berria erabiliz.

TESTUA : HIRUGARREN GRABAKETA.

Gero, Peio joan zen elefantearengana, gauza bera kondatu zion eta elefanteak ere laguntzea onartu zuen. Soka lotu zuen balearen buztanari, elefantearen buztanari, sasi gibelean gordetu zen eta TAN TAN TAPATAPAN hasi zen ttun-ttunarekin. Munduko bi abere azkarrenak tiraka hasi ziren, gero eta indar gehiagoz, ustezko behia ezin lohitik ateratuz. Bukaeran kexatu ziren eta indar guziez tiratu zuten, hainbeste non soka hautsi baitzen, elefantea itzulipurdika eta balea itsasoan barna, ziliporta handi batean igorritz.

Geroztik, oso gaitzituak dira, ez dira gehiago elgarrekin mintzatzen eta munduko beste izaki guziak, Peio barne, bakean uzten dituzte.

Ariketak :

Hiztegi batean hitz hauek bilatzen dituzu eta kaierean idazten:

Itzulipurdi, ziliporta, gaitzitu.

Bukatzeko :

Ikasleek, aldizka ipuin osoa kondatu beharko dute, hiztegian atxeman hitzak erabiliz eta ipuinaren komikia egingen dute.